

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

63/2020 Foru Araua, martxoaren 9koa, zeinaren bidez onesten baita arte eszeniko eta musikalen prestakuntza ekintzetarako laguntzen 2020ko ekitaldiko deialdi publikoa

Kultura eta Kirol Sailak proposatu du 2020ko ekitaldian arte eszeniko eta musikaletan prestakuntza ekintzetarako laguntzen deialdi publikoa egitea.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea 2020ko ekitaldian arte eszenikoetako eta musikako prestakuntza ekintzak egiteko laguntzen deialdi publikoari, zeina gehienez ere 20.000 euroz hornituta egongo baita. Deialdia Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren arabera arautuko da (ALHAOren 134. zenbakia, 2019ko azaroaren 20koa), zeinaren bidez onetsi baitziren oinarri arautzaile orokorrak, Kultura eta Kirol Sailak norgehiagoka bidez emango dituen dirulaguntzak arautzekoak.

Bigarrena. Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldiko gastu aurrekontuaren partida honen kontura egingo da: 70.1.08.72.00.480.00.01 (xedapen erreferentzia:105.964).

Hirugarrena. Ebazpenak lau hilabeteko epean emango dira, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igaro eta artean ez bada ebazpen esanbidezkorik eman, adituko da ezetsi egin dela, hargatik eragotzi gabe geroago ebaztea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. Artikuluan xedatzen duenaren arabera, auderako berraztertzeko errekurtsua jar dakiokete Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, egintza hau argitarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakiokete bi hilabeteko epean, egintza hau argitarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatzen dituen moduetan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2020ko martxoaren 9a

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria

M^a INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

Eranskina

Arte eszeniko eta musikalen 2020ko ekitaldiko prestakuntza ekintzetarako deialdi publikoa

Lehenengoa. Xedea

Deialdi honen xedea honako hau da: 2020ko ekitaldirako dirulaguntzak ematea, lehiaketa araubidean, arte eszenikoen (dantza, antzerkia, zirkua eta mimoa) eta musikalen alorretan norbanakoen garapen eta ezaguera bultzatzeko, alde batera utzita oinarritzko prestakuntzako ikasketa arautuei dagozkien edo eszenaratze edo muntaia berekin dakarten proiektuak. Deialdi hori honako honek xedatutakoaren arabera garatuko da: Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua, zeinak Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onetsi baitzituen.

Bigarrena. Pertsona onuradunak

Deialdi honetara aurkeztu ahal izango dira 2020ko urtarrilaren 1ean baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko guztiak:

– 18 urte beteta edukitzea eta 30 urte bete gabe.

– Azkeneko hiru urteetan jarraian Arabako Lurralde Historikoko edo Trebiñuko enklabea edozein udalerritan erroldatuta egotea

Ezin daitezke laguntza hauen onuradunak izan Arabako Foru Aldundiak sustatu dituen laguntzen barruan lehenagoko bi deialditan espezialitate edo arlo berdinerako laguntza jaso duten pertsonak.

Hirugarrena. Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak

Laguntza hauek eskuratzeko interesa duten pertsonak ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, idatziz edo irudiz hizkuntza ez sexista erabiliz:

a) Eskabidea, oinarri hauen eranskin moduan argitaratzen den ereduaren arabera.

b) NANaren fotokopia.

c) Errolda ziurtagiria.

d) Laguntza eskatzen duen pertsonaren curriculum vitae-a, eskabidearen xede den jakintza arloko prestakuntza eta espezializazioari buruzko egiaztagiri egokiak erantsita.

Adierazitako baina dokumentatu gabeko ekintzak ez dira kontuan edukiko.

e) Aurrera eraman beharreko proiektuaren azalpen memoria.

f) Agiriak (proiektua zuzentzeko edo babesteko ardura duen pertsonak eta/edo erakundeak jaulkiak, eta/edo onarpen ziurtagiria, hala badagokio), egiaztatzen dutenak eskatzaileak egin duela aurkeztutako proiektua, agiri horietan jaso beharko delarik zenbat ordu iraungo duen proiektu horrek 2020an.

g) Proiektua gauzatu nahi duen herrialdeko hizkuntza nahiko ongi (elkarrizketa mailan) ezagutzen duela egiaztatzen duen agiria, atzerrian egiten bada eta hizkuntza ofiziala ez bada Euskal Autonomia Erkidegoan bertako hizkuntza bezala aitorturik daudenetako bat.

Laugarrena. Eskabideak aurkeztea eta epea

Laguntza eskabideak, hirugarren oinarrian eskatzen diren agiriekin batera, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira edo bide elektronikotik, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoan. Hori ez da oztopo izango Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoa aplikatzeko.

Eskabideak aurkezteko 30 egun naturaleko epea egongo da, oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Eskabideak ez badira behar den moduan aurkezten, edo deialdi honetan eskatzen diren agirietakoren bat falta bada, interesdunari eskatuko zaio 10 egunen barruan akats hori zuzendu dezala edo beharrezko agiriak erants ditzala. Adierazi den epean hala egiten ez badu, bere eskabideari uko egiten diola iritziko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da.

Pertsona bakoitzak deialdi honetako laguntza bat bakarra eskatu ahal izango du.

Bosgarrena. Aurrekontu baliabide erabilgarriak, laguntza motak eta sortzapena

Laguntza hauek emateko aurrekontu muga 20.000 eurokoa da. Hona gastu hau babesten duen aurrekontu partida: Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 70.1.08.72.00.480.00.01 "Arte prestakuntza eta sormeneko beka".

Deialdi honek laguntza mota hauek hartzen ditu barne, zenbatekoari eta gauzatzeko tokiari dagokienez:

TOKIA	ZUZKIDURA EUROTAN
Atzerrian gauzatu beharreko proiektuak	5.000
Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo eta Espainiaren barruan gauzatu beharreko proiektuak	3.000

Baldin eta laguntza jaso dezakeen azken eskatzaileari ezin bazaio dirulaguntzarik eman diru esleipen nahikorik ez dagoelako, gainerako zenbatekoaz diruz lagunduko da.

Laguntzaren ordainketa ondoren azaltzen den moduan egingo da, eta hari dagokion atxikipena egingo zaio:

- Zenbatekoaren ehuneko 70, laguntza ematen den unetik aurrera.
- Gainerako ehuneko 30a, gauzatuak proiektuari buruzko memoria aurkezten denean.

Seigarrena. Prozedura izapidetzea

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ekintza Zerbitzuak izango du prozedura izapidetzeko eskumena.

Zazpigarrena. Eskabideen azterketa, balorazio irizpideak eta ebazpena.

Onuradunak aukeratzeko proposamena batzorde batek egingo du, zeina honako hauek osatuko baitute:

- Lehendakaria: Kultura zuzendaria
- Kideak: Kultura Ekintza Zerbitzuaren burua; Kultura Zuzendaritzari atxikitako teknikari bat, eta, idazkari moduan jarduten, hitzarekin baina botorik gabe, Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoaren burua.

Irizpide hauen arabera egingo da balorazioa:

- Eskatzailearen curriculum vitae-a ehuneko 70, ondoren adierazten den moduan banaturik:

Ehuneko 30, laguntza eskabidearen xedea den alorreko prestakuntza.

Ehuneko 40, laguntza eskabidearen xedea den alorreko esperientzia eta hartan egindako jarduerak.

- Egiteko den proiektuaren interesa, ehuneko 30.

Balorazio batzordeak, egoki iritiz gero, arloko espezialisten txostenak edo kanpoko aholkularitza teknikoak eskatu ahal izango ditu, aurkeztutako proiektuak ebaluatzeko.

Batzorde horrek, aurkeztu diren eskabideak ikusirik, aukeran izango du proposatzea beka hauen esleipena erabat edo zati batean eman gabe uztea.

Balorazio batzordeak proposamen bat aurkeztuko du beka esleitzeko izan diren eskabideak lehentasun hurrenkeraz zerrendaturik, bateraezintasun, ausentzia eta uko egiteko kasuetarako.

Merezimendu berdinekin, lehentasuna emango zaie azken hiru ekitaldietan sail honetatik inolako laguntzarik jaso ez duten pertsonak aurkeztutako eskabideei.

Deialdi honetako beken emakida Kultura eta Kirol Saileko foru diputatu titularren foru agindu baten bidez ebatziko da, ikusita zer dioen batzordearen txostenak, eta onuradunei haren berri emango zaie urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten duenarekin bat etorritz.

Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, nahi izanez gero, errekurtsua aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso ondorengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Beka eskabideak lau hilabeteko epean ebatziko dira, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Epe hori igaro eta artean ez bada ebazpen esanbidezkorik eman, adituko da ezetsi egin dela, hargatik eragotzi gabe geroago ebaztea.

Zortzigarrena. Laguntzaren xedea den proiektua gauzatzeko denbora

Gutxienez 250 orduko iraupena duten proiektuetarako emango dira laguntzak, eta haiek 2020ko ekitaldian zehar gauzatu beharko dira.

Bederatzigarrena. Laguntzen onuradunen eginbeharrak

a) Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 13. artikuluan izaera orokorrez ezarritako betebeharrak bete behar dituzte onuradunek.

b) Beka hauek eskuratzeko eskabideak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezartzen diren arauak espresuki eta baldintzarik gabe onartzen direla.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko gizonen eta emakumeen berdintasunaren 4/2005 Legean eta emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoan jasotako printzipioak eta betebeharrak betetzea.

d) 2020ko abenduaren 11ra arteko epea izango dute egindako lanari buruzko amaierako memoria aurkezteko. Horren barruan, besteak beste, proiektuaren zuzendaritzaren arduraren duen pertsonak edo erakundeak emandako asistentzia ziurtagiria jaso beharko da, proiektuak irauten duen ordu kopurua adierazten duena, baita ere pertsona edo erakunde horrek emandako ebaluazio ziurtagiri bat.

e) Berariaz onartu behar da emandako laguntza, hura emateko jakinarazpena jasotzen denetik hamabost egun balioduneko epean.

Hamargarrena. Agiriak itzultzea

Eskatzaileek aurkeztutako agiriak, haien eskabideak izan ezik, hilabeteko epean berreskuratuz ahal izango dira, laguntza hauei buruzko ebazpena jakinarazi ondoren, salbu laguntzen onuradunek aurkeztutako materialak, horiek espedienteari gehituko baitzaizkio. Ezarritako epe

hori igarotakoan, Kultura eta Kirol Sailari aurkeztutako eta berreskuratu gabeko agiriak suntsitu egingo dira.

Hamaikagarrena. Bateriaezintasunak

Deialdi hauen xedea diren laguntzak bateraezinak izango dira proiektu bererako beste edozein laguntza jasotzearekin, baita ere interesdunak edozein erakunde, korporazio edo pertsona publiko nahiz pribaturekin kontratu edo estatutu lotura izatea berekin dakarten soldata eta ordainsariak jasotzearekin, laguntza eman baino lehenago Kultura Zuzendaritzak horren berri izan eta baimen espresua eman gabe.

Hamabigarrena. Laguntzak itzultzea

Esleitutako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzenak, ezarritako kasuetan.

Jaso ondoren itzuli beharreko dirulaguntzak zuzenbide publikoko sarrera izango dira, eta ekonomia eta aurrekontu araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauko I. kapituluko II. tituluan ezarritakoaren arabera kobratuko dira.

Hamahirugarrena. Interpretazioa

Oinarri hauek interpretatzerakoan zalantzaren bat sortuz gero, Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak ebatziko du.

Hamalagarrena. Garapena

Kultura eta Kirol Saileko titularrak deialdi honen garapenerako bidezkoztat jotzen diren ebazpenak emango ditu, eta datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko eta horretara behartzeko bide ematen duten ekintzak burutu ahal izango ditu. Horretarako, onuradunek konpromisoa hartzen dute egindako jardueren inguruan, Kultura eta Kirol Sailak eskatzen dizkien datu eta agiri guztiak emateko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatutako informazioa ere eman beharko dute.

Hamabosgarrena. Publizitatea


Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahal dena egingo da hedabideetan zabalkunderik handiena izan dezan.

Hamaseigarrena. Erreklamazioak

Deialdi hau eta beronen ondorioz sortutako administrazio egintza oro inpugna daitezke, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezarritako kasuetan eta eran.

Hamazazpigarrena. Azken klausula

Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztian, honako hauei jarraituko zaie: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena; abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubidearena; aurrekontua egikaritzeko foru araua, indarrean dagoena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena; 3/2007 Lege Organikoa, gizonen eta emakumeen berdintasunerakoa; 4/2005 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko emakume eta gizonen berdintasunerakoa, eta aplikatzekoa den gainerako araudia."

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Arte Eszenikoen eta Musikalen prestakuntza ekintzatarako laguntza eskaera (eranskina)</p> <p>2020</p> <p>Solicitud de ayuda para acciones formativas en Artes Escénicas y Musicales (anexo)</p>
	<p>Kultura eta Kirol Saila</p> <p>Departamento de Cultura y Deporte</p>

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

Eskaera zk. ■ N° Solicitud

Eskaera data ■ Fecha Solicitud

--	--

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

<input type="checkbox"/> IKZ CIF	<input type="checkbox"/> NAN DNI	<input type="checkbox"/> AIZ NIE	<input type="checkbox"/> Besteren bat Otro
-------------------------------------	-------------------------------------	-------------------------------------	---

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

--

Sexua ■ Sexo

<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre
--	---

Izena ■ Nombre

--

Lehen abizena ■ Primer apellido

--

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

--

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

--

Zk. ■ Núm.

--

Letra

--

Eskra. ■ Escal.

--

Solairua ■ Piso

--

Aldea ■ Mano

--

Herrialdea ■ País

--

Probintzia ■ Provincia

--

Udalerría ■ Municipio

--

Herria ■ Localidad

--

P. K. ■ C. P.

--

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

--

Jaiotze data ■ Fecha nacimiento

--

Telefona ■ Teléfono

--

Mugikorra ■ Móvil

--

Faxa ■ Fax

--

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL ⁽²⁾

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

--

Zk. ■ Núm.

--

Letra

--

Eskra. ■ Escal.

--

Solairua ■ Piso

--

Aldea ■ Mano

--

Herrialdea ■ País

--

Probintzia ■ Provincia

--

Udalerría ■ Municipio

--

Herria ■ Localidad

--

P. K. ■ C. P.

--

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

<input type="checkbox"/> NAN DNI	<input type="checkbox"/> AIZ NIE	<input type="checkbox"/> Besteren bat Otro
-------------------------------------	-------------------------------------	---

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

--

Sexua ■ Sexo

<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre
--	---

Izena ■ Nombre

--

Lehen abizena ■ Primer apellido

--

Bigarren abizena ■ Segundo apellido

--

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

--

Telefona ■ Teléfono

--


Mugikorra ■ Móvil

--

Faxa ■ Fax

--

Orria ■ Hoja 1/4

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Arte Eszenikoen eta Musikalen prestakuntza ekintzatarako laguntza eskaera (eranskina)</p> <p>2020</p> <p>Solicitud de ayuda para acciones formativas en Artes Escénicas y Musicales (anexo)</p>
	<p>Kultura eta Kirol Saila</p> <p>Departamento de Cultura y Deporte</p>

BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS ⁽³⁾

(Banku helbideratzearen datuak aidatu badira bete solik ■ Cumplimentar únicamente en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

BANKUA ■ BANCO	
IBAN	SWIFT

(FINANTZA ENTITATEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA)	(ESKATZAILEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la persona SOLICITANTE)
<p>Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ■</p> <p>Conforme entidad financiera (firma y sello)</p> <p>.....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de..... de.....</p> <p>Finantza erakundeak ZIURTATZEN du lehen adierazitako banku kontua "ESKATZAILEA" atalean ageri den pertsona fisiko edo juridiko interesdunaren izenean eta IFZarekin dagoela irekita, eta pertsona interesdun hori kontuaren titular gisa ageri dela</p> <p>La entidad financiera CERTIFICA que la cuenta bancaria anteriormente señalada figura abierta al NIF y nombre de la persona física o jurídica interesada que figura en el apartado "SOLICITANTE", y que dicha persona interesada figura como titular de la cuenta.</p>	<p>Hirugarren interesdunaren sinadura edota entitatearen zigilua ■</p> <p>Firma de la persona interesada y/o sello de la entidad interesada</p> <p>.....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de..... de.....</p> <p>ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT:</p> <p><input type="checkbox"/> Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan, ESKAERA HONI IFZ-REN FOTOKOPIA ERANTSITA</p> <p><input type="checkbox"/> Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan</p> <p>INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES:</p> <p><input type="checkbox"/> Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava, para lo cual <u>SE ADJUNTA FOTOCOPIA DEL NIF A LA PRESENTE SOLICITUD</u></p> <p><input type="checkbox"/> Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.</p>

Orria ■ Hoja 2/4



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Arte Eszenikoen eta Musikalen prestakuntza ekintzatarako laguntza eskaera (eranskina)

2020

Solicitud de ayuda para acciones formativas en Artes Escénicas y Musicales (anexo)

Kultura eta Kirol
Saila

Departamento de
Cultura y Deporte

ESKATZEN DUEN ARLO ETA LAGUNTZA MOTA (Adierazi X batez) ■ ÁREA Y MODALIDAD DE AYUDA QUE SOLICITA (indicar con una X)

<input type="checkbox"/>	Arte Eszenikoen Arloa ■ Área Artes Escénicas	Laguntza mota ■ Modalidad
<input type="checkbox"/>	Musika-artearen Arloa ■ Área Artes Musicales	Laguntza mota ■ Modalidad

ZEIN IKASGAITARAKO ESKATZEN DUEN LAGUNTZA ■ MATERIA DE ESTUDIO PARA LA QUE SE SOLICITA AYUDA

.....

.....

PROGRAMA GAUZATUKO DEN LEKUA ■ LUGAR EN EL QUE VA A DESARROLLAR EL PROGRAMA

.....

Herrialdea ■ País:

ERANTSITAKO AGIRIAK ■ DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

- NANaren fotokopia ■ Fotocopia del DNI.**
- Errolda ziurtagiria ■ Certificado de empadronamiento.**
- Curriculuma eta laguntza eskatuko den arloan egindako ikasketen egiaztagiria bai eta espezializazio ikasketenak ere ■ Currículum Vitae y documentos acreditativos relativos a la formación y especialización en la disciplina objeto de la solicitud.**
- Egin nahi den proiektuaren azalpen memoria ■ Memoria explicativa del proyecto a desarrollar.**
- Agiriak (proiektua zuzentzeko edo babesteko ardura duen pertsonak eta/edo erakundeak jaulkiak, eta/edo onarpen ziurtagiria, hala badagokio), egiaztatzen dutenak eskatzaileak egingo duela aurkeztutako proiektua, agiri horietan jaso beharko delarik zenbat ordu iraungo duen proiektu horrek 2020an. ■ Documentación (emitida por la persona y/o entidad responsable de tutelar o dirigir el proyecto y/o certificado de admisión, en su caso) que acredite la realización -por la persona solicitante- del proyecto presentado, con expresión del número de horas de duración del citado proyecto en el año 2020.**
- Atzerriko hizkuntza elkarrizketa mailan behar beste dakiela egiaztatzen duen agiria ■ Documento que acredite el conocimiento suficiente, nivel conversación, del idioma del país donde pretenda realizar el proyecto.**

**PERTSONA INTERESDUNAREN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA ■
DECLARACIÓN RESPONSABLE DE LA PERSONA INTERESADA**

Aurretik aipatu den laguntzaren eskatzaile gisa, zera ADIERAZTEN DUT: ■ Como solicitante de la ayuda a la que he hecho mención anteriormente, DECLARO:

- ✓ **Proiektua egiteko laguntzarik jaso ez dela, bai eta inongo bateraezintasunen menpe ez egotearena ere ■ No disfrutar de ningún tipo de ayuda para la realización del Proyecto, ni de hallarme en situación de incompatibilidad alguna.**
- ✓ **Ez daukadala zehapenik ez debekurik laguntza publikoak jasotzeko, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legeaz baliatuz ■ No estar sancionada/o con la prohibición de ser persona beneficiaria de ayudas públicas en virtud de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.**

Orria ■ Hoja 3/4



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Arte Eszenikoen eta Musikalen prestakuntza ekintzatarako laguntza eskaera (eranskina)

2020

Solicitud de ayuda para acciones formativas en Artes Escénicas y Musicales (anexo)

Kultura eta Kirol
Saia

Departamento de
Cultura y Deporte

- Eskabide honetan eta berari erantsitako agirietan azaldutako datu guztiak egiazkoak direla. Jabeturik nago oinarriak ez betetzeak edo iruzurrezko omisio edo faltsutasunak** ■ Que todos los datos expuestos en la presente solicitud y documentos que acompaño se ajustan a la realidad, siendo consciente del perjuicio que se me puede irrogar por incumplimiento de las Bases, omisión dolosa o falseamiento.
- Berariaz baimena ematen dut nire datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiak trata ditzan, baldin eta laguntza hau kudeatzeko helburuz bada.** ■ Manifiesto mi consentimiento expreso para que Diputación Foral de Álava (DFA) trate mis datos personales para la finalidad de gestionar esta ayuda.

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/ordezkararen sinadura ■ Firma de la persona solicitante/representante

Oharra (1)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titularitasuneko *Kultura deialdiak* izeneko fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamendua Arabako Foru Aldundiak kultura ekitaldien berri jakin nahi duten pertsonentzako informazioa kudeatzeko eta zabaltzeko egiten da. Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, lege ezarritako kasuez kanpo. Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, DBEOK aitortzen dituenak, eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba). Argibide gehiago: <http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoko bakararen helbidea (EBH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

Oharra (3)

Zuk emandako banku datuak hirugarrenen eta interesdunen fitxategian erregistratuko dira, zeina Administrazio honen titularitatekoa baita, aurrekontu gauzatzeari eta aurrekontuz kanpoko gauzatzeari dagozkion eragiketen izapideak egiteko. Atal honetan emandako datuak ez dira tratatuko edo komunikatuko, baldin eta lehenago egindako ordaintzen ondorioz, dagoeneko alta eman bazaie identifikazio eta banku datuei, berriro ere kobratzea hautatzeko eman direnei

Nota (1)

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser incluidos en el Fichero denominado *Convocatorias culturales* titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión de información y comunicación dirigidas a personas interesadas en actividades culturales. Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava). Para más información: <http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>.

Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una dirección de correo electrónico única (DEU) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente

Nota (3)

Los datos bancarios facilitados por usted se registrarán en el Fichero de Terceros e interesados titularidad de esta Administración para realizar la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria y extrapresupuestaria. No se tratarán ni comunicarán los datos cumplimentados en este apartado si como consecuencia de pagos realizados con anterioridad, ya estuvieran dados de alta los datos identificativos y bancarios por los que de nuevo se optara para el cobro.

Orria ■ Hoja 4/4